ARABAKO FORU ALDUNDIA

IRAGARKIA, «A-2128 errepidea 48.750 km-tik 49.820 km-raino zabalagotu eta trazadura hobetzeko eraikuntza proiektua»k eragingo dituen ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda jakinaraztekoa 21122

ZERGA AGENTZIA
TERUELGO ORDEZKARITZA

IRAGARKIA, egiteke dauden jakinarazpenetarako zitazioari dagokiona. 21126

ZERGA AGENTZIA
ZARAGOZAKO ORDEZKARITZA

IRAGARKIA, Zaragozako Zerga Agentziako Ordezkaritza Probintzialeko Dirubilketa Bulegoarena, zenbait egintza administratibo jakinarazi behar direla-eta, agertzeko zitazioa egiten duena. 21127

ZERGA AGENTZIA
BARTZELONAKO ORDEZKARITZA

IRAGARKIA, jakinarazpen batzuk egin behar direla-eta, agertzeko zitazioa egiteko dena. 21130

ZERGA AGENTZIA
EUSKAL ERKIDEGOKO
ORDEZKARITZA BEREZIA

EBAZPENA, pertsona jakin bat prozeduran ager dadin zitazioa egiten duena. 21134

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

ANUNCIO relativo a la aprobación de la relación definitiva de los bienes y derechos afectados por el Proyecto de Construcción de Mejora de Trazado y Ampliación de Plataforma de la Carretera A-2128, P.K. 48,750 a P.K. 49,820. 21122

AGENCIA TRIBUTARIA
DELEGACIÓN DE TERUEL

ANUNCIO de citación para notificaciones pendientes. 21126

AGENCIA TRIBUTARIA
DELEGACIÓN DE ZARAGOZA

ANUNCIO de la Dependencia de Recaudación de la Delegación Provincial de la Agencia Tributaria de Zaragoza por el que se publica citación por comparecencia para la notificación de diversos actos administrativos. 21127

AGENCIA TRIBUTARIA
DELEGACIÓN DE BARCELONA

ANUNCIO de citación para notificación por comparecencia. 21130

AGENCIA TRIBUTARIA
DELEGACIÓN ESPECIAL
DEL PAÍS VASCO

RESOLUCIÓN por la que se cita de comparecencia a determinada persona. 21134

Xedapen Orokorrak

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

Zk-5939

248/2003 DEKRETUA, urriaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan erregai likidoen arloan dagoen araudi jakin bat indargabetzekoa.

Eusko Jaurlaritzaren urriaren 29ko 597/1991 Dekretuak beste batzuei saltzeko eta hornitzeko instalazioetan, baita norberaren erabilpenekoetan ere, industri eta zerbitzuen prozesu eta jardueretan, halaber, etxebizitzetako eta beroketako instalazioetan erregaiak eta karburante likidoak biltzeko araudiaren marko orokorra ezarri zuen.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO de INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO

Nº-5939

DECRETO 248/2003, de 21 de octubre, por el que se deroga determinada normativa de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de combustibles líquidos.

El Decreto 597/1991, de 29 de octubre, del Gobierno Vasco, estableció un marco general de regulación del almacenamiento de combustibles y carburantes líquidos en las instalaciones de venta y suministro a terceros, así como en las de uso propio para procesos industriales, de servicios y domésticos o de calefacción.

Industria eta Energia sailburuaren 1992ko abuztuaren 11ko Agindu bidez, automoziorako erregaiak eta karburante likidoak hornitzeko eta saltzeko instalazioei buruzko DIE-IT-ACL-01 jarraibide teknikoa onartu zen, lehen aipatu 597/1991 Dekretua garatze aldera. Bertan, instalazio horiek egitean jarraitu beharreko arau teknikoak ezartzen ziren, ordura arte 1936ko urtarrilaren 25eko Dekretu bidez arautua baitzegoen arlo hori. Azken aipatu dekretuak petrolio-industriaren instalazioetako erregelamendua onartzen zuen, eta kontuan hartua noizkoa zen, eta hura onartu zenez geroztik emandako garapen teknologikoa, ez zen egokia egungo teknika eta baldintzetarako.

1992ko abuztuaren 11ko Agindua, tankeen konponketei eta aldizkako berrikuspenei dagokienez, 1994ko urtarrilaren 24an aldatu zen, eta 597/1991 Dekretuarekin batera, erregai likidoen inguruan, autonomia mailan indarren dauden oinarrizko legeak dira bi horiek.

Industriaren Legeak, uztailaren 16ko 21/1992 Legeak, 12. artikuluko 5. idatz-zatian dioenaren arabera, Industria Segurtasunaren alorreko erregelamenduak estatuko gobernuak onartuko ditu; hala ere, industriaren gaineko legeak emateko eskumena duten autonomia erkidegoek arlo horietarako betebehar osagarriak ezarri ahalko dituzte, instalazioak haien lurraldearen barruan jarri behar direnean.

Testuingurua hori dela, zaharkitua zegoen legedia osatzeko eta eguneratzeko asmoz, estatuak hainbat arau onartu zituen; izan ere, hainbat sektore ez baitziren orduan zeudenetan jasotzen.

Gauzak horrela, 1994ko urriaren 20an 2085/1994 Errege Dekretua eman zen, eta haren bidez, Petrolio-instalazioen erregelamendua, MI-IP-O1 jarraibide tekniko osagarria, «errefinategiak», baita MI-IP-02 «petrolio likidoa biltzeko parkeak» ere onartu ziren. Ondoren, 2201/1995 Errege Dekretua eman zen, eta horrek MI-IP-04 jarraibide tekniko osagarria, «petroliozko karburante eta erregaiak txikizka banatzeko instalazio finkoak publikoari saltzeko instalazioak», onartu zuen; eta irailaren 15eko 1427/1997 Errege Dekretuaren bidez, MI-IP-03 jarraibide teknikoa, «norberaren erabilerarako petrolio-intalazioak» onartu zen. Horretaz aparte, MI-IP-02 jarraibide tekniko osagarria «petrolio likidoa biltzeko parkeak» uztailaren 17ko 1562/1998 Errege Dekretuak aldatu zuen.

Beranduago, urriaren 7ko Hidrokarburoen sektorearen 34/1998 Legeak, besteak beste, hidrokarburo likidoen inguruko jardueren araubide juridikoa arautu zuen, ikuspegi liberalagotik arautu ere; eta horren arabera, lehenago jarduerarako beharrezkoa zen administrazioaren baimena gaur egun ez da behar. Lege horrek haren xedapen iragankorretako hirugarrenean xedatzen duenaren arabera, gobernuari eskatzen zaio instalazioen

Por Orden de 11 de agosto de 1992, del Consejero de Industria y Energía, se aprobó la Instrucción Técnica DIE-IT-ACL-01 sobre instalaciones de suministro y venta al público de combustibles y carburantes de automoción que, en desarrollo del Decreto 597/1991, antes citado, establecía la normativa técnica a aplicar para ejecutar dichas instalaciones, materia que hasta ese momento se regulaba en el Decreto de 25 de enero de 1936 que aprobaba el Reglamento de instalaciones en la industria petrolífera, y que, dada su antigüedad y el desarrollo tecnológico que se había producido desde su aprobación, no se adaptaba a la técnica y condiciones del momento.

La Orden de 11 de agosto de 1992 fue modificada con fecha 24 de enero de 1994 en lo referente a reparación de tanques y revisiones periódicas y constituye básicamente, junto con el Decreto 597/1991, la legislación autonómica vigente en materia de combustibles líquidos.

Por otro lado, la Ley 21/1992 de 16 de julio, de Industria, señala en el apartado 5 del artículo 12, que los reglamentos de Seguridad Industrial de ámbito estatal se aprobarán por el Gobierno de la Nación, sin perjuicio de que las Comunidades Autónomas, con competencia legislativa sobre industria, puedan introducir requisitos adicionales sobre las mismas materias cuando se trate de instalaciones radicadas en su territorio.

En este contexto, y con la doble finalidad de completar y actualizar una legislación que había quedado obsoleta y que no contemplaba algunos sectores como el de las estaciones de servicio, se procede a la aprobación de una serie de normas estatales.

Así, con fecha 20 de octubre de 1994 se dictaba el Real Decreto 2085/1994, de 20 de octubre por el que se aprobaba el Reglamento de Instalaciones Petrolíferas y las Instrucciones Técnicas Complementarias MI-IP-01 «Refinerías» y MI-IP-02 «Parques de almacenamiento de líquidos petrolíferos», y posteriormente el Real Decreto 2201/1995, por el que se aprobaba al Instrucción Técnica Complementaria MI-IP-04 «Instalaciones fijas para distribución al por menor de carburantes y combustibles petrolíferos en instalaciones de venta al público» y el Real Decreto 1427/1997, de 15 de septiembre, por el que se aprobaba la Instrucción Técnica Complementaria MI-IP-03 «Instalaciones petrolíferas para uso propio». A su vez, la Instrucción Técnica Complementaria MI-IP-02 «Parques de almacenamiento de líquidos petrolíferos» ha sido modificada por el Real Decreto 1562/1998, de 17 de julio.

La Ley 34/1998, de 7 de octubre, del Sector de Hidrocarburos, ya con posterioridad, ha regulado, entre otros, el régimen jurídico de las actividades relativas a los hidrocarburos líquidos desde una perspectiva de mayor liberalización, suprimiendo la exigencia de autorización administrativa para el ejercicio de la actividad. Dicha Ley insta al Gobierno, en su disposición transitoria tercera, a aprobar las Instrucciones Técnicas Com-

segurtasuna bermatzeko baldintza teknikoak ezartzen dituzten jarraibide tekniko osagarriak onar ditzan. Eta marko horretan, urriaren 1eko 1523/1999 Errege Dekretuak lehen aipatu 2085/1994 Errege Dekretuaren hainbat artikulu aldatu zituen —Petrolio-instalazioen erregelamendua onartzekoa—, ez baitziren 34/1998 Legera egokitzen; eta idazkera berria eman zien MI-IP-03 eta MI-IP-04 jarraibideei. Horretaz aparte, hainbat xedapen iragankor ezarri zituen non dauden instalazioei berrikuspena, eta aldizkako frogak lehenengo aldiz noiz egin behar zaizkien xedatzen zuen. Xedapen horiek Europako Parlamentuaren 98/34 EE zuzentarauan eta ekainaren 22ko kontseiluan arau eta erregelamendu teknikoen inguruan aurreikusita dagoen informazioaldia izan zuten.

Eusko Jaurlaritzaren urriaren 29ko 597/1991 Dekretuak beste batzuei saltzeko eta hornitzeko instalazioetan baita norberaren erabilpenekoetan ere, industri eta zerbitzuen prozesu eta jardueretan, halaber, etxebizitzetako eta beroketako instalazioetan erregaiak eta karburante likidoak biltzeko araudiaren marko orokorra ezarri zuen, baina hainbat aspektutan urriaren 7ko Hidrokarburoen sektorearen 34/1998 Legeak xedatutakoaren kontra doa; hori dela eta, adierazi gabe idargabetua dagoela ulertu behar da.

Beraz, ondorio gisa esan daiteke materia honen inguruan daudela, aldi berean, autonomiaren araudia –597/1991 Dekretua, 1992ko abuztuaren 11ko Agindua, 1994ko urtarrilaren 24koak aldatua–, eta estatuarena, azkenengo hau teknikoki errealitateari lotuagoa. Horregatik, eta mota horretako instalazioetan aplikatu behar den araudia argitzeko, egokiena dirudi indarrean dagoen autonomiaren legedia indargabetzea.

Aurretik adierazitakoa horrela bada ere, indargabetze horrek autonomia erkidego honek baimendu dituen estankotasunen egiaztapen prozedurek indarra galtzea ekarriko luke, beraz, egoki ikusten da prozedura horiek indarrean mantentzea, egiaztapena duen saiakuntza-laborategia ez dagoen bitartean, MI-IP-03 instrukzioaren 38 idatz-zatiak eta MI-IP-04 instrukzioaren 39. idazt-zatiak aipatzen dituzten deposituen estankotasunprobak egiteko sistemak aztertuko dituen laborategia, hain zuzen; beti ere erabilitako sistemak 100 ml/h isuria detektatuko duela bermatzen bada, ez bestela.

Horrenbestez, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren proposamenez, 2003ko urriaren 21eko Gobernu Kontseiluan eztabaidatu eta onartu ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.

Ondoren zerrendatzen diren xedapenak indargabetzea, baita horiek garatze aldera emandako guztiak:

plementarias que establezcan las condiciones técnicas necesarias para garantizar la seguridad de las instalaciones. En este marco, el Real Decreto 1523/1999, de 1 de octubre, ha modificado varios artículos del Reglamento de Instalaciones Petrolíferas aprobado por el Real Decreto 2085/1994 antes citado, por no ajustarse a la Ley 34/1998 y ha dado una nueva redacción a las MI-IP-03 y MI-IP-04, a la vez que establece unas disposiciones transitorias que contemplan nuevos plazos para realizar la primera revisión y pruebas periódicas a las instalaciones existentes, disposición que ha sido sometida al procedimiento de información en materia de normas y reglamentos técnicos previstos en la Directiva 98/34 CE del Parlamento Europeo y del Consejo de 22 de junio.

El Decreto 597/1991, de 29 de octubre, del Gobierno Vasco, que establecía un marco general de regulación del almacenamiento de combustibles y carburantes líquidos en las instalaciones de venta y suministro a terceros, así como en las de uso propio para procesos industriales, de servicios y domésticos o de calefacción, se opone en algunos aspectos a lo dispuesto en la Ley 34/1998, de 7 de octubre, del Sector de Hidrocarburos, por lo que en esos extremos debe entenderse tácitamente derogado.

En conclusión, se puede afirmar que, en esta materia, coexiste una normativa autonómica constituida, básicamente, por el Decreto 597/1991, la Orden de 11 de agosto de 1992, modificada por la del 24 de enero de 1994, con una regulación estatal, técnicamente más acorde con la realidad, lo que aconseja, en aras a clarificar la normativa a aplicar a este tipo de instalaciones, la derogación de la normativa autonómica vigente.

No obstante lo anterior, en tanto en cuanto esta derogación supondría la perdida de vigencia de los procedimientos de verificaciones de estanqueidad autorizados por esta Comunidad Autónoma, se considera oportuno, hasta que exista laboratorio de ensayo acreditado para evaluar los sistemas para realizar las pruebas de estanqueidad de los depósitos al que hacen referencia los apartados 38 de la MI-IP-03 y 39 de la MI-IP-04, mantener, con carácter transitorio, la vigencia de dichos procedimientos siempre y cuando se garantice que el sistema utilizado asegurará la detección de una fuga de 100 ml/h.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 21 de octubre de 2003,

DISPONGO:

Artículo único.

Derogar las disposiciones que a continuación se relacionan, así como cualquier otra dictada en desarrollo de las mismas:

– Urriaren 29ko 597/1991 Dekretua, beste batzuei saltzeko eta hornitzeko instalazioetan, baita norberaren erabilpenekoetan ere, industri eta zerbitzuen prozesu eta jardueretan, halaber, etxebizitzetako eta beroketako instalazioetan erregaiak eta karburante likidoak biltzeko araudiaren marko orokorra ezartzekoa.

– Industria eta Merkataritza Saileko 1988ko uztailaren 18ko Agindua, C gasoila erabiltzen duten norbanako instalazioak martxan jartzeari eta dokumentazioari buruzko arau teknikoa eta jarraibideak onartzekoa.

– Industria eta Energiaren sailburuak 1992ko abuztuaren 11ko Agindua, DIE-IT-ACL-01 jarraibide teknikoa onartzekoa, automoziorako erregaiak eta karburante likidoak hornitzeko eta saltzeko instalazioei buruzkoa.

– Industria eta Energiaren sailburuak 1994ko urtarrilaren 24an emandako Agindua, 1992ko abuztuaren 11ko Agindua, DIE-IT-ACL-01 jarraibide teknikoa onartzekoa, automoziorako erregaiak eta karburante likidoak hornitzeko eta saltzeko instalazioei buruzkoa, aldatzekoa.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.

Erregai eta karburante likidoak baita petroliotik eratorritakoak ere biltzeko tankeen estankotasuna egiaztatzeko prozedurak, Euskal Autonomia Erkidegoan baimendutakoak, indarrean jarraituko dute denbora batez; hain zuzen ere, egiaztatutako saiakuntzako laborategia egon bitartean. Laborategi horrek ebaluatuko ditu MI-IP-03 jarraibidearen 38. eta MI-IP-04 jarraibidearen 39. artikuluak aipatzen dituzten deposituen estankotasun-probak egiteko sistemak.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa horrela bada ere, prozedura horiek indarrean mantendu ahal izateko, dekretu hau indarrean sartu eta lau hilabete pasa baino lehenago, erabiltzen duten sistema 100 ml/h-ko isuria detektatzeko gai dela egiaztatu beharko dute.

Aipatu egiaztapena adierazitako epearen barruan egiten ez bada, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak emandako baimena baliorik gabe gelditzuko da.

Bigarrena.

Dekretua indarrean sartzen denean eraikitzen ari diren instalazioek honen bidez indargabetzen den araudiari jarraitu beharko diote.

Aurrekoa horrela izan arren, petroliotik eratortzen diren erregai eta karburante likidoak biltzeko instalazioen titularrek MI-IP03 eta MI-IP04 jarraibide tekniko osagarriek diotenari jarraitu ahalko diote, urria-

– Decreto 597/1991, de 29 de octubre, por el que se regula el almacenamiento de combustibles y carburantes líquidos en las instalaciones de venta y suministro a terceros, las de uso propio, en procesos o actividades industriales y de servicios, así como en instalaciones domésticas y de calefacción y se establecen las condiciones técnicas de las mismas.

– Orden de 18 de julio de 1988, del Departamento de Industria y Comercio, por la que se aprueba la Norma Técnica e Instrucciones sobre documentación y puesta en servicio de instalaciones individuales que utilicen como combustible gasóleo C.

– Orden de 11 de agosto de 1992, del Consejero de Industria y Energía, por la que se aprueba la Instrucción Técnica DIE-IT-ACL-01, sobre instalaciones de suministro y venta al público de combustibles y carburantes líquidos de automoción.

– Orden de 24 de enero de 1994, del Consejero de Industria y Energía, de modificación de la Orden de 11 de agosto de 1992 por la que se aprueba la Instrucción Técnica DIE-IT-ACL-01, sobre instalaciones de suministro y venta al público de combustibles y carburantes líquidos de automoción.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.

Los procedimientos de verificación de estanqueidad de tanques destinados al almacenamiento y suministro de combustibles y carburantes líquidos y derivados del petróleo autorizados por la Comunidad Autónoma del País Vasco mantendrán su vigencia, con carácter transitorio, hasta que exista laboratorio de ensayo acreditado para evaluar los sistemas para realizar las pruebas de estanqueidad de los depósitos al que hacen referencia los apartados 38 de la MI-IP-03 y 39 de la MI-IP-04, momento a partir del cual deberán ser acreditados por el mismo.

No obstante lo establecido en el párrafo anterior, la vigencia de dichos procedimientos quedará condicionada a que, en el plazo de 4 meses a partir de la entrada en vigor de este Decreto, se acredite que el sistema utilizado por los mismos garantizará la detección de una fuga de 100 ml/h.

Transcurrido dicho plazo sin que se haya presentado la acreditación antes citada quedará sin efecto la autorización otorgada por la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Segunda.

Las instalaciones en construcción a la fecha de entrada en vigor del presente Decreto seguirán rigiéndose por la normativa que se deroga.

No obstante lo anterior, los titulares de las instalaciones de almacenamientos de combustibles y carburantes líquidos derivados del petróleo podrán acogerse, según corresponda, a las prescripciones de las instruccio-

ren 1eko 1523/1999 Errege Dekretuaren I. eta II. eranskinetan ezarrita dagoen bezala.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko urriaren 21ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

nes técnicas complementarias MI-IP03 y MI-IP04 en los términos establecidos en los Anexos I y II del Real Decreto 1523/1999, de 1 de octubre.

DISPOSICIÓN FINAL

Este Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de octubre de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Zk-5940

EBAZPENA, 2003ko urriaren 8koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearena, Unibertsitateko Katedradunak, Unibertsitateko Irakasle Titularrak, eta Unibertsitate-eskolako Irakasle Titularrak, izendatzeko dena. Plaza horietarako deialdia 2001eko azaroaren 26ko Erabakiaren bidez egin zen (abenduaren 11ko «Estatuko Buletin Ofiziala).

Unibertsitate-Erreformarako abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 42. artikuluan eta berau garatzen duten gainerako xedapenetan adierazitakoaren arabera, eta interesatuak, 13. artikuluaren 1. puntuan ezarririko epean, irailaren 26ko 1888/1984 Errege Dekretuaren 5. artikuluaren 2. atalean aipaturiko betebeharrak bete ondoren, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen 2001ko azaroaren 26ko (abenduaren 11ko «Estatuko Buletin Ofiziala») Erabakiaren bidez deialdia eginiko Unibertsitateko plazak betetzeko lehiaketa epaitu behar duen batzordeak proposamen bat egin zuen. Errektoregoaren 2003ko apirilaren 4ko (maiatzaren 9ko «Estatuko Buletin Ofiziala») Erabakiaren bidez izendatu zen batzorde horren proposamenarekin bat etorriz.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

Nº-5940

RESOLUCIÓN de 8 de octubre de 2003, de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se nombran Catedráticos de Universidad, Profesores Titulares de Universidad y Profesores Titulares de Escuela Universitaria, cuyas plazas fueron convocadas por Resolución de 26 de noviembre de 2001 («Boletín Oficial del Estado» de 11 de diciembre).

De conformidad con la propuesta de la Comisión nombrada por Resolución Rectoral de 4 de abril de 2003 («Boletín Oficial del Estado» de 9 de mayo) para juzgar el concurso para la provisión de plazas de Cuerpos Docentes Universitarios, convocadas por Resolución de 26 de noviembre de 2001 de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea («Boletín Oficial del Estado» del 11 de diciembre), de acuerdo con lo determinado en el artículo 42 de la Ley Orgánica 11/1983, de 25 de agosto, de Reforma Universitaria y demás disposiciones que la desarrollan, y habiendo cumplido los interesados los requisitos a que alude el apartado 2 del artículo 5.º del Real Decreto 1888/1984 de 26 de septiembre, en el plazo establecido en el punto 1 del artículo 13. Este Rectorado ha resuelto nombrar: